BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5505

EBAZPENA, 2011ko urriaren 20koa, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena, EAEko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialaren bidez irakasteko 2011-2012 ikasturterako aurreikusitako diru-laguntzen kopuru osoa aldatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko apirilaren 20ko Aginduaren (2011ko maiatzaren 16ko EHAA) 13. artikuluak ezartzen duenaren arabera, Aginduak aipatzen dituen laguntzak finantzatzeko 683.366 euro izango dira, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen kontura. Agindu horren bidez, Lanbide Heziketako irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei eskaintza partzialeko modalitatean 2011-2012 ikasturtean heziketa-zikloak irakasteko baimena eta diru-laguntza eskatzeko deia egiten da.

Bestetik, aipatutako artikuluak dioenez, aurreikusitako kopuru osoa areagotu egin daiteke eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean beste laguntza-egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak ahitu gabe geratu badira.

Diru-laguntza horiek emateko deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita, aurrekontu-programan kreditua edukita, eta lehen aipatutako 2011ko apirilaren 20ko Aginduaren 13. artikuluari jarraituta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Laguntza horiek finantzatzeko 2011-2012 ikasturteko deialdian aurreikusitako diru-kopuru osoari 484.502 euro gehitzea, beraz, laguntza horiek finantzatzeko 1.167.868 euro izatea.

Zenbateko horretatik 934.294,40 euro ordainketa-kreditua dira eta 233.573,60 euro konpromiso-kreditua.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 20a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.